



Emakunde

e abendua 2007

SARE 2007 Maskulinotasuna eta eguneroko bizitza



- * Administrazioa martxan: GIZONDUZ, un programa para implicar a los hombres en la igualdad. BERDINSAREA, Campaña contra la violencia hacia las mujeres en los municipios vascos.
- * Emakumeen Elkarteak: HITZEZ, baserriko emakumeen sentimenduei izena jarri dien elkarteak.

Ainitze Txopitea

Para Ainitze Txopitea, la poesía forma parte de la plástica y constituye un todo visual. La obra es un embrión que complementa ambos medios, puede ser leída con fruición y contemplada lentamente. Está abierta a sensaciones, se desarrolla en el espacio y crece en el tiempo.

En el trabajo de Ainitze Txopitea las letras forman palabras y conforman sentido. Son capaces de connotar destino, pero también tienen una tipografía y se extienden por los límites de la obra, a distintas alturas y diferentes ritmos, creando múltiples estratos y no pocos alejamientos y acercamientos como los planos de un paisaje.

La artista deja jirones de sí, pone en valor situaciones, implica y sensibiliza hacia referentes íntimos o afronta cuestiones colectivas. El yo se implica tanto usando la primera persona como mediante la utilización de la propia imagen de la autora. Un autorretrato sincero que hace suyo el recuerdo de lo vivido, maneja situaciones y manifiesta sentimientos e ideas respecto a todo tipo de cuestiones.

Más allá de lo que se percibe, está el misterio de lo que se oculta. Una excitación implicada. La intermitencia de lo latente, como un semáforo que se enciende y lanza señales. La recuperación del deseo. El remojo de lo que excita. La ocultación que comienza a abrirse. Ainitze Txopitea atrapa una prisa que se congela. Como dice en una de sus obras, "El tiempo es el silencio que vuela".

Xabier Sáenz de Gorbea



Ainitze Txopitearen ustez, poesia plastikaren zati da, eta multzo bisuala osatzen du. Bitarteko biak osatzen dituen enbrioia da obra; atseginez irakur daiteke, eta astiro-astiro behatu. Sentsazioetara irekita dago, espazioan garatzen da eta denboran hazten.

Ainitze Txopitearen lanean hizkiek hitzak osatzen dituzte, eta esanahia hartzen dute. Jomugaren berri emateko gauza dira, baina tipografia ere badute; obraren mugetatik harago zabaltzen dira, hainbat altueratara eta hainbat erritmotan. Hala, geruza ugari sortzen dituzte, baita hamaikatxo gerturatze/urruntze ere, paisaia bateko planoak balira bezala.

Artistak bat-batean aldatzen ditu gauzak, egoerei balioa ematen die, erreferente intimoen inguruan inplikatzeko eta sentibiltzatzen du, eta auzi kolektiboak heltzen die. Nia inplikatzeko, lehendabiziko pertsona erabiltzen du; bestela, berriz, egilearen irudia ere erabiltzen du. Autoerreturatu zintzoa, bizi izandakoaren oroitzapena bere egiten duena, egoerak moldatzen dituena eta era guztietako kontuen inguruko sentimenduak eta ideiak jakinarazten dituena.

Hautematen denetik harago, ezkutuan dagoenaren misterioa dago. Inplikaturako asaldura. Egonean dagoenaren aldizkakotasuna: pizten eta keinuak egiten dituen semaforoa kasu. Desioa berreskuratzea. Berotzen duena bustitzea. Irekitzen hasten dena ezkutetzea. Ainitze Txopiteak izozten ari den presa harrapatzen du. Halaxe kontatzen du bere obretako batean: «Denbora hegaka dabilen isiltasuna da».

Xabier Sáenz de Gorbea

DIRECCION: EMAKUNDE
Instituto Vasco de la Mujer

COORDINACION: Karmele Jaio
A. Zugasti (Kazeta 5)

DISEÑO GRAFICO
Y MAQUETA: Javier López Altuna

FOTOGRAFÍA: Karlos Corbella
Mikel Arrazola
Ion Bernal
Javier Lopez Altuna
Jesús Mari Pemán

EDITA: EMAKUNDE
Instituto Vasco de la Mujer
MANUEL IRADIER, 36
01005 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945-016700
Fax. 945-016701
E-mail: emakunde@ej-gv.es
www.emakunde.es

DEPOSITO LEGAL: VI-356-89

I.S.S.N.: 0214-8781

IMPRIME: A.G. ELKAR, S. Coop.

EMAKUNDEK egiten dituen artikulua berridatzi daitezke, bai bere osotasunean, bai zatika, baina nondik atera diren aipatu behar da beti.

EMKUNDEK ez ditu bereganatzen derrigorrez artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak. Bere iritzia editoriale-tan ematen da ezagutzera.

EMAKUNDE permite la reproducción total o parcial de sus artículos siempre que se cite su procedencia.

EMAKUNDE no se identifica necesariamente con las opiniones incluidas en los artículos y colaboraciones. La opinión de la misma se vierte en sus editoriales.

PORTADA: Ainitze Txopitea



- Editorial - Editoriala	02
- Zuhaitza eta basoa <i>Inazio Mujika Iraola</i>	04
Congreso SARE: Masculinidad y vida cotidiana	
- Introducción	06
- Intervención de Juan José Ibarretxe, Lehendakari	08
- Izaskun Moyua, Emakundeko zuzendariaren sarrera	10
- Ponencias - marco: "Lo que cuesta ser hombre". María Jesús Izquierdo <i>Lupe Calvo</i>	12
"Construcción de la masculinidad y relaciones de género". Luis Bonino <i>M. Lasarte</i>	15
- Entrevista. Benno de Keijzer <i>M. Lasarte</i>	18
- Entrevista. Lola Ferreiro <i>Lupe Calvo</i>	20
- Mesa redonda: "Aprendiendo a ser hombre: modelos y conductas de riesgo" <i>Oihana Prado</i>	22
- Entrevista. Capitolina Díaz <i>Lupe Calvo</i>	26
- Entrevista. María Pazos <i>M. Lasarte</i>	27
- Entrevista. Clara Coria <i>Lupe Calvo</i>	28
- Mesa redonda: "Territorios de la masculinidad" <i>M. Lasarte</i>	29
- Ponencia. Jouni Varanka	32
- Frases para la reflexión	34
- Inkesta / Encuesta participantes en SARE 2007	36
- SARE 2007 irudietan	40
- Inkesta / Encuesta La masculinidad vista por ellos	42
Administrazioa martxan	
- Las consecuencias del cuidado	48
- BERDINSAREA 2007 Campana contra la violencia hacia las mujeres en los municipios vascos	52
- Gizonduz, una iniciativa para implicar a los hombres en la igualdad	54
- Albisteak	58
Asociaciones de Mujeres - Emakume Elkartek	
- Hitzez <i>Josune Vélez de Mendizabal</i>	60
- Liburuak	62
- Artistas en perfil: Izebene Oñederra <i>Urkiri Salaberria</i>	64

Datozen urtetarako Emakundek finkatu dituen helburuen artean aipagarrienetako bat da berdintasunaren aldeko lanean gizonen inplikazioa bultzatzea. Emakunde orain dela ia 20 urte jaio zen, eta sortu zenetik bere ildo estrategikoen artean beti eduki ditu kontuan gizonak, beti barneratu izan ditu bere estrategietan eta landu dituen berdintasun planen barruan. Gizonek berdintasunaren alde egin dezaketen ekarpenaz aspaldi dago arduratua, beraz, Emakunde, argi izan duelako beti guztion esku-bideak errespetatuko dituen gizarte berri bat eraiki nahi baldin badugu, behar-beharrezkoa dela gizonak berdintasunaren aldeko borrokan inplikatzeari.

Mende honetako erronka nagusia eredu sozial demokratikoago, bidezkoago eta berdintasunezkoago bat eraikitzea izan behar da. Gizarte berri horretan pertsona guztiek aske eta beren buruaren jabe izan behar dute, bai esparru publikoan, bai pribatuan. Errespetuan eta berdintasunean oinarritutako bizikidetzaren modelo batek, emakumeei ez ezik, gizonei ere egingo lieke mesede. Bai, egia da egungo sistema patriarkalak pribilegioak ematen dizkiela gizonei (diru gehiago irabazten dute, botere eta aginpide handiagoak dauzkate esparru publikoan, eta onura handia ateratzen dute nagusiki emakumeek egiten dituzten etxeko eta arreta lanetatik), baina egia da, halaber, sistema hori, rolen banaketa zorrotzean oinarrituta egonik, badituela alde makurrak gizonentzat: bizi-itxaropen txikiagoa dute, eta joera handiagoa dute bai drogen mendean erortzeko, bai trafikoko istripuak, lan-ezbehar larriak eta heriotza bortitzak jasateko, bai kartzelara joateko. Gainera, nola familiaren ekonomiaren euskarri nagusi izateko hezi dituzten, presio handiagoa jasaten dute lantokian ordu gehiago egin ditzaten. Horregatik, produkzioaren munduan ematen dute ia bizi osoa, eta ez dute beren ahalmen eta gaitasun guztia garatzen, bereziki haurrak hazteari eta maitasun-agerpenei dagokienean.

Emakundetik Gizonduz Ekimena jarri dugu abian gizonak sexuen arteko berdintasunaren alde kontzientziatzeko eta beren parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzeko. Gizonduz une historiko egokian sortu da. Iragan mendeko 80. hamarkada inguruan, maskulinitasunaren alorrera hedatu zen generoari buruzko ikerketa. Orduetik, gizonen eta berdintasunaren arteko harremanaren gaiak sekulako indarra hartu du, erakundeek, ikerketa foroek eta gizarte mugimenduek urte askoan egindako lanari esker. Azken aldi honetan, gizon eredu berri batekin ari gara topo egiten. Gutxi dira oraindik. Gizon horrek bere egiten du berdintasunaren eskaera, eta historian zehar horren alde ia bakarka eta denen aurka borrokatu diren emakumeekin lerrokatu da. Gizon horrek badaki berdintasunak gizonago eta pertsonago egiten duela, eta bere jokaerarekin besteak kutsa ditzakeela. Garbi baitauek, noski, gizonaren laguntzarik eta inplikaziorik gabe berdintasunaren helburua urrundu egiten dela.

Beren eskubideen eta askatasunaren aldeko borroka baketsuaren handitasuna erakutsi dute emakumeek historian. Doazela gizonak ere haien atzetik, eta berdintasunaren unibertsoan aurkituko dute laster beren burua.



Mende honetako erronka nagusia eredu sozial demokratikoago, bidezkoago eta berdintasunezkoago bat eraikitzea izan behar da. Gizarte berri horretan pertsona guztiek aske eta beren buruaren jabe izan behar dute, bai esparru publikoan, bai pribatuan.

Impulsar la participación de los hombres en el trabajo por la igualdad de mujeres y hombres es uno de los objetivos prioritarios que Emakunde se ha marcado para los próximos años. Conscientes de que sin la participación e implicación de la mitad de la sociedad es imposible la construcción de un nuevo modelo de convivencia, desde su creación, hace 20 años, el Instituto Vasco de la Mujer ha dado pasos firmes hacia los hombres investigando las diferentes masculinidades, impulsando el fortalecimiento de las nuevas formas de identidad de los mismos, incorporando a los hombres en cada uno de sus planes de igualdad y en cada una de sus acciones estratégicas.

El reto de este siglo debe ser el de construir un nuevo modelo social más democrático, justo e igualitario, donde todas las personas sean libres y autónomas en el ámbito público y en el privado. Un nuevo modelo de convivencia basado en el respeto y la igualdad no sólo beneficiaría a las mujeres, sino también a los hombres, ya que si bien es cierto que el actual sistema patriarcal les confiere como colectivo unos privilegios –disfrutan de mayores ingresos, cotas de poder y de una mayor autoridad en el ámbito público y se benefician del trabajo doméstico y de cuidado realizado muy mayoritariamente por mujeres–, no es menos cierto que dicho sistema, sustentado en una diferenciación rígida de roles, tiene también sus costos para los hombres. Tienen en general una esperanza de vida menor, son más propensos a sufrir drogodependencias, accidentes de tráfico, accidentes laborales graves o a ser víctimas de muertes violentas y del encarcelamiento. Además, en la medida que han sido socializados para cumplir el papel de proveedor principal del sustento económico en las familias, sufren una mayor presión en el ámbito del empleo para que alarguen las jornadas de trabajo, lo que hace que consuman su vida prácticamente en el mundo productivo y que no desarrollen todas sus potencialidades y capacidades, sobre todo aquéllas que guardan relación con el mundo reproductivo y de los afectos.

Con el objetivo de que los próximos años supongan un sprint en la carrera de la implicación de los hombres a la igualdad, desde Emakunde hemos puesto en marcha la Iniciativa Gizonduz, una iniciativa que nace en un momento histórico favorable. Desde que la investigación en torno al género se amplió alrededor de los años 80 a la problemática de la masculinidad, el tema de los hombres y su relación con la igualdad ha ido cogiendo la fuerza de una ola gracias a una labor de muchos años realizada desde instituciones, foros de investigación y movimientos sociales. Estamos encontrándonos con un nuevo modelo de hombre, aún minoritario, que hace suya la reivindicación de la igualdad, impulsada durante la historia por las mujeres casi en solitario y a contracorriente. Este hombre sabe que la igualdad le hace más hombre, más persona, y que puede contagiar con sus conductas a los demás. Porque tenemos claro que sin la aportación e implicación de los hombres, la consecuencia de la igualdad se aleja.

Las mujeres han enseñado en la historia la grandeza de la lucha pacífica por sus derechos y libertades. Que los hombres sigan su rastro para acabar encontrándose a sí mismos en el universo de la igualdad.



El reto de este siglo debe ser el de construir un nuevo modelo social más democrático, justo e igualitario, donde todas las personas sean libres y autónomas en el ámbito público y en el privado.

Zuhaitza eta basoa

Testua: Inazio Mujika Iraola
Fotomuntaketa: Javier Lopez Altuna




“Antes que nada tengo que reconocer que en este tema estoy más en la posición de aprender que de enseñar. No hay ni que decir que estoy lejos de ser un referente en estas cuestiones, pero he arrancado con estas líneas con el propósito de ordenar esta mezcla de ideas e intuiciones. Creo que el futuro, de ser de alguien, lo será del ser humano, de los hombres y mujeres, o no será de nadie. Y quiero mantenerme atado a este pensamiento como suelo hacer en tantas otras cuestiones, con la misma energía con la que el pulpo se agarra a la roca”. Son algunas de las reflexiones del escritor y editor guipuzcoano Inazio Mujika Iraola que plasma en su primera incursión en la revista Emakunde.

Ezer baino lehen, aitor dezadan gai honetan ikasteko gehiago nagoela ezer irakasteko baino. Ez dago esan beharrik oso urruti nagoela kontu honetan eredugarri izatetik, baina ideia nahasiak eta intuizioak idatziz jartzetik zerbait ordenatzen hasi naitekeelako esperantzak bultzatu nau lerro hauek idaztera. Ez naiz ni etorkizuna emakume dela pentsatzen duten horietakoa, eta ez dut horrelako baieztapenik egingo orain, emakume irakurleekiko onkeriaz. Etorkizuna, norbaitena izatekotan, gizakiarena dela uste dut, gizon-emakumeena, edo ez da izango. Eta uste horri lotu nahi naitzaio, gai honetan bezala beste askotan ere, olagarroa arrokari bezala.

Zer da gizon izatea niretzat gaurko gizartean? Galdera hori jartzen bazait aurrean, erantzuna aise ematera ausartuko naiz. Gizona pertsona da, giza espezieko izaki eta kide, eta giza espezieko izate

hori beste izaki batekin partekatzen du: emakumearekin. Egia jakina asmatu duenaren baieztapena lirudike honek, mende luzeetako eskarmentua ez bagenu atzetik, eta, gainera, ez dago gaizki egia jakinak maiz samar gogoratzea, zer gerta ere. Idazten ari naizen egun hauetan, eta idazten ari naizen leku honetatik berrogei kilometrora baizik ez (behinola Amabirjina agertu omen zen herrian bertan) hainbat emakume aurkitu dituzte “etxe” batean itxita eta esklabotzako erregimen batean beren buruak prostituitzera behartuta: pauso bat aurrera eman dezala egia jakinen gainean emakume horiei hitz erdi bat esan eta eroso sentituko litzatekeen horrek.

Ez dut nik askorik sinesten, bestalde, gizontasunari ohituraz egozten zaizkion hainbat tasun eta keriatan, eta arrazoi berberengatik gauza bera gertatzen zait emetasunaren kasuan ere. Pertsonalita-



tearen ezaugarri maskulino eta femeninoak, edo horrela deitu izan direnak, ez dira ezaugarri biologikoak, eta beraz jantziaren, orrazkeraren abailan aldatzen dira eta aldarazi daitezke. Garaiak aldatu direla uste dut, eta, zorionez, garai nahasiagoak bizi ditugu eta are biziko ditugu.

Garaiak aldatuz doazela esan dut, eta oker esan dut. Garaiak eta egoerak guk aldatzen baititugu, gizon-emakumeok. Eta bi sexuen arteko harremanen berdintasunaren gatazkan, emakumeek, emakume batzuek, harrotu eta hauspotu zuten aldaketaren haizea, eta besteok ustez haize horren norakoan mugitu gara lehenago edo geroago, su biziagoz edo motelagoz. Aldaketa guztien bide jakina da hori. XX. mendea barrabaskeria askorengatik gogoratua izango da, baina barkaberatasunez begiratuko zaio etorkizunean, ehun urte horietan utzi baitzion gizonezkoak gizadiaren neurri bakarra izateari.

Gizontasunaren modelo berriak onartzeko, gizatasunaren bideak urratu behar dira, enpatiarenak; besteren larriuan jartzea da bidea, bidegabekeria egoera guztietan bezala, bestalde. Baina onartzetik praktikan jartzera koxka dago. Konparazio batekin azalduko dizuet niri gertatzen zaidana, gehiagori ere gertatuko zaiolakoan. Hara, mendia niretzat zoragarria da. Maite dut mendia bere kolore sinfoniaren kontzertuan, esate baterako udazkenean, hango berdeen eta okreen jarraipen baztergabean murgilduta. Gustuko dut hartan gozatzea, eta nire buruan aise irudika dezaket baretasuna, edertasuna eta zoriona mendi-buelta baten esperientzia bati lotua. Maite dut mendia, bai... teorian. Izan ere, maiz gertatzen zait mendia maite dudala bezperako motxila prestatzeko lanak arimatzen diren arte, goiz jaikitzearen deserosotasunak harrapatzen nauen arte, laburbilduz, mugitu behararren nagitasunak maitasuna ondoez –une batekoa, baina ondoeza– bihurtzen didan arte. Gauza bera gertatzen zait, gizon naizenez gero, emakumearen berdintasunaren gaian. Ados nago horren gauzatzeak dakartzan ondorio on guztiekin, nola ez ba! Ezin adosago... Teorian, ordea. Horrek behartzen bainau zorrotzasunaren motxila uneoro nirekin eramatera eta inertzien nagiak gaintetik nola kendu uneoro pentsatzera. Baina badakit behin mendian, behin berdintasunean, gozatu egingo dudala.

Ez da ideia txarra gizona borroka horretara inguratzeko orain entzuten ditudan esanak, alegia berdintasunak ez duela emakumea bakarrik askatzen, gizonezkoa ere irabazian aterako litzatekeela aldaketa hori benetan gauzatuz gero. Ideia argia da, adimenduna eta zentzuzkoa. Baina ez dago ezkutatu beharrik horrek badituela bere kostuak gizonezkoentzat. Benetan gogatu behar genituzke geure buruak, iritzi batera bildu eta sinetsita esan geure aiten eta aitonen papera ez dugula inondik inora inbidiatzen. Are, errukarriak iruditzen zaizkigula gizarteak eskatzen zien gizon rola beteazearren galdu zutenagatik. Horrek berak bihurtu behar gintuzke aktiboago aldaketa gerta dadin. Ez motxila egin beharrak ez goiz jai-

kitzeak ez gintuzke izutu behar, aldaketatik onik irten nahi badugu.

Hori dena pentsatu behar genuke, batez ere, aldaketa gainean daukagulako. Ezin itzurizkoa delako. Aurrean eramango gaituelako bestela. Noizbait irakurri edo entzun nuen (holakoetan beti esaten da txinatar esaera zahar bat dela, eta Konfuzioren bada, hobe; baina ez dakit benetan hala den) zuhaitz bat erortzen ari delarik, zarata handiagoa sortzen duela baso oso bat hazten ari delarik baino. Gizontasun zaharraren zuhaitza erortzen ari da eta zarata beldurgarriak sortuko ditu oraindik (mingarriak sarri, bilaukeriazkoak), baina gizontasun berriaren basoa hazten ari da, isilik eta etengabe. Kontua da asmatzen ote dugun baso hori egoki zaintzen, zuhaitz horiek bizkor edo mantso hazten ari diren, eta basoz nahastuko ote garelako beldurrak estutzen ote gaituen. Gaitz erdi konturatuko bagina basoa ez dela hala-moduzko zuhaitz multzokatze hutsa, zuhaitzek elkarren osagarri izan behar dutela baso harmoniatsu batean.


Nolanahi ere, ez zait iruditzen gizontasun zaharraren zuhaitza (edo nahiago baduzue, gizonkeriarena) denik hemen erortzen ari den zuhaitz bakarra. Gure aurreko belaunaldiko emakumeek ongi asko dakite zenbat kostatu den emetasun zaharraren arbola botatzea, eta beldur naiz ez ote zaion oraindik ere enbor zahar hari zainik geratzen.

Oso gogoan dut nerabetasunaren berdetasunak erabat gainditu gabe nintzela, neska batekin "ibiltzen" hasi nintzenean, amak zeremonia handiarekin eman zidan aholkua: "Errespetatu ezazu". Une horretan nerabetasunaren berdetasunak eraman ninduen pentsatzera gure amak bazuela puntu aurrerakoi bat. Berehala konturatu nintzen, ordea –berdetasunak ez du betiko irauten–, halako aholku hark zer esan nahi zuen. Eta konturatu nintzen, gainera, mendeak zirela munduko ama guztiek ez dakit –askotxo esatea izango da–, baina euskal ama guztiek bai behintzat, halako egoeretan, beren semei eman dieten aholku atabiko bera eman zidala. Gaur pentsatzen dut gure ama mezu atabiko haren jarraitzaile hutsa baino gehiago izan zela. Harentzat ere garaiak aldatzen hasiak baitziren (pentsatzeko joera dugu aldaketak gure belaunaldiak protagonizatzen dituela). Ez dut ukatuko une hartan esan nahi zidana honako hau zela: "errespetatu" ezazu ezkontzen zareten arte, ez zaitez, seme, harekin oheratu. Baina errespetatze haren atzean gauza gehiago, eta funtsean garrantzitsuago, esan nahi zizkidala iruditzen zait. Gizabidetik hurbilago.

Errespetuaren kontzeptua giltza dela iruditzen zait ari garen gai honetan. Eta errespetatzeko ezagutu egin behar da. Giza espezieak historia luzea du atzean, osatzen duen bi sexuen arteko mendekotasun harremanen lekuko, elkarri bizkar emanez; gure esku dago elkarri, onenean, bizkar emanez bizi izandakoa, zuzentzea. Gurdi okerra zuzen dezakeen doktrinarik ez dut nik, baina errespetuaren eta ulermenaren bidetik oso urruti ez du egon behar.

Congreso *Masculinidad* SARE '07

Sare nazioarteko biltzarraren 5.edizioa Donostiako Kursaal aretoan egin zen azaroaren 5 eta 6an eta oraingo honetan gizonak izan zituen hizpide "Maskulinitasuna eta



1



2


eguneroko bizitza" lelopean. Aurreko edizioekin konparatuz, inoiz baino gizonezko gehiago hurbildu zen bertara eta bitxi-keriren bat aipatzekotan, latinoameriketarik etorritako partaideen kopurua litzateke, inguru haietan gai honek sortzen duen kezka eta interesaren adierazgarri garbia. Bi egunetan zehar, Kursaalaretoan gainezka egon zen, 470 pertsonen eman baitzuten parte hartzeko izena.

Con el propósito de analizar la incidencia de los modelos tradicionales de masculinidad en la vida cotidiana de mujeres y hombres, Emakunde organizó la quinta edición del Congreso Internacional Sare, que tuvo lugar durante los días 5 y 6 de noviembre en Donostia. Durante estas dos jornadas, especialistas en economía, psiquiatría, psicología, antropología, educación para la salud, pedagogía, sociología, criminología o política fiscal y género ofrecieron sus puntos de vista sobre los comportamientos de los hombres educados en un modelo de masculinidad en el que impera el patriarcado. También se vieron propuestas para avanzar en el camino hacia la igualdad de mujeres y hombres.

La inauguración estuvo presidida por el lehendakari Juan José Ibarretxe, que siempre ha demostrado su compromiso político con estas cuestiones y que en reiteradas ocasiones ha declarado la necesidad de que los hombres se planteen los paradigmas de la masculinidad. La directora de Emakunde, Izaskun Moyua, explicó las razones que movieron al Instituto Vasco de la Mujer a organizar este encuentro internacional anual y el porqué de elegir la masculinidad como tema central para esta edición.

Entre las 470 personas inscritas, procedentes del País Vasco, del resto del Estado y de Suecia y México, se encontraban 81 hombres, un número superior al de cualquiera de las cuatro ediciones

y vida cotidiana



3



4

1- Entrega de acreditaciones y documentación.

2- Aspecto de la entrada al congreso en el auditorio Kursaal.

3- El lehendakari Ibarretxe acompañado de Izaskun Bilbao, presidenta del Parlamento Vasco y de Izaskun Moyua, directora de Emakunde en el acto de apertura de Sare 2007.

4- Mesa del acto inaugural.

5- Vista general del público asistente.



5

anteriores. Esta presencia masculina estimuló el sentido del humor del psicoterapeuta Luis Bonino, que antes de su intervención saludó con un "Buenos días a todas y a algunos".

La primera jornada comenzó con las ponencias marco de la socióloga y economista María Jesús Izquierdo, que analizó los beneficios y lo que cuesta ser hombre en la sociedad actual, y la del psicoterapeuta y psiquiatra argentino Luis Bonino, quien habló de la construcción de la masculinidad y de las relaciones de género.

El panel dedicado a la salud y cuidados lo desarrollaron Benno de Keijzer y Lola Ferreiro. El primero de ellos se basó en su experiencia en el campo de salud y género que desarrolla en su México natal para hablar sobre "Masculinidades, resistencia y cambio en el campo de la salud". Lola Ferreiro, responsable del Programa de Salud Pública de la Consejería de Sanidad de la Xunta de Galicia, aseguró que la autoagresividad y la abnegación femeninas, frente a la heteroagresividad y el egocentrismo masculinos son, además de las claves que condicionan la desigualdad, dos elementos que influyen decisivamente en la salud.

Élida Alfaro Gandarillas sustituyó a Benidle Vázquez en el panel dedicado a juventud, ocio y riesgo que se expuso por la tarde. En su calidad de especialista en deporte se refirió a la práctica de esta actividad física como parte de la educación que puede servir para difundir valores y conductas que favorezcan la construcción de una nueva masculinidad.

La antropóloga donostiarra Beatriz Moral revisó los factores socio-culturales que pueden explicar la mayor siniestralidad vial de los hombres.

La relación de los hombres jóvenes con el consumo del alcohol y el concepto de masculinidad fue analizada por Richard de Visser, profesor de Psicología en la Facultad de Brighton y Sussex, para lo que

se basó en un estudio realizado entre jóvenes londinenses de entre 18 y 21 años.

La jornada del día 6 se inició con la intervención de la socióloga Capitolina Díaz, primera de las tres ponentes que desarrollaron el panel sobre la Gestión del dinero. Un estudio realizado entre parejas de distintas edades y situaciones económicas realizado en distintos países le sirvió para obtener agudas observaciones, como que cuando el hombre gana menos que la mujer en la pareja, este dato se oculta socialmente.

La matemática María Pazos se refirió a la importancia de aplicar políticas públicas en cuestiones que pueden definirse como asuntos privados, como pueden ser los roles de género.

El concepto "sexuación del dinero", creado por la psicóloga argentina Clara Coria, fue de lo más didáctico para explicar los modelos subjetivos que circulan en el inconsciente colectivo de mujeres y hombres con relación al dinero, que conllevan la idea de que "el dinero es cosa de hombres".

El panel dedicado a la violencia y criminalidad fue inaugurado por la socióloga italiana Tamar Pitch, quien se centró en "El género de la seguridad urbana".

¿Por qué las mujeres delinquen menos? Es la pregunta que lanzó la especialista en Derecho penal y criminología, Elena Larrauri, en su intervención, para detenerse en diferenciar los rasgos de la violencia ejercida por hombres y mujeres.

El psicólogo Andrés Montero Gómez teorizó sobre la violencia como una conducta compleja que se utiliza para imponer unas voluntades sobre otras y examinó la violencia masculina hacia la mujer.

El congreso finalizó con la ponencia del sociólogo finlandés Jouni Varanka, que expuso el modelo de su país en política de igualdad de género.

Juan José Ibarretxe

Lehendakari



Es imposible modificar comportamientos si no cambiamos los valores”



Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren esanetan, gizonezkoak eta emakumezkoak desberdin tratatzen direlako du munduko pobrezia emakume aurpegia. Eta, jarrera horrek irauten duen bitartean, ez omen dira konponduko ez emakumeekiko tratu txarrak, ez txirotasuna, ez langabezia, zaintzaren inguruko arazoak. Era berean, gizonezkoek maskulinitasunaren paradigmen inguruan hausnarketa egitea nahiko lukeela gehitu zuen. Horrez gain, Kongresuko ekarpenek sekula bukatzen ez den bidean aurrera egi- teko balioko dutelakoan dago Ibarretxe.

“Gero eta gizon gehiago gara emakume eta gizonen arteko berdintasunari beldurrik ez diogula izan behar konturatzaren garenok. 2001. urtean honetaz aritu nintzen eta garai haietan aintzindari eta ia ‘iraultzaile’ ere sentitu nintzen baina egun babestuagoa sentitzen naiz gauza hauek esaterakoan”.



El lehendakari Juan José Ibarretxe, tras dar la bienvenida a las personas que asistieron al congreso, en especial a quienes venían de otros pueblos del Estado y de otros países, remarcó su convencimiento de que la razón fundamental por la que la pobreza tiene cara de mujer en el mundo es la forma de tratar a las personas de diferente manera por el hecho de ser hombre o mujer. “Estoy convencido –añadió– de que mientras lo sigamos haciendo no solventaremos el problema de la violencia contra las mujeres, ni el de la pobreza, ni el del desempleo, ni el del cuidado. En definitiva, estoy convencido de que hay que atacar de raíz el problema de la desigualdad para, a su vez, atacar el conjunto de problemas que tenemos a nuestro alrededor”.

Ibarretxe recordó que en 2001, en este mismo foro, expresó su convicción de que los hombres tenían que cuestionarse los paradigmas de la masculinidad. “Aquello, dicho entonces, pudo ser casi revolucionario, pero lo cierto es que en estos seis años hemos hecho muchas cosas y hoy, afortunadamente, creo que hay muy pocos hombres a los que eso les resulta revolucionario en nuestra sociedad”.

Ésta es una prueba –señaló– de que estamos abrazándonos a otros valores, porque son éstos los que provocan los comportamientos. A continuación, como ejemplo clarificador, aludió a una historia sucedida en Gran Bretaña en el siglo XVIII y protagonizada por un popular ladrón, quien cuando la policía le preguntó la razón por la que robaba bancos, contestó que porque es allí donde estaba el dinero. Como moraleja, el lehendakari propuso la necesidad de cambiar valores “si queremos cambiar comportamientos”.

“Es imposible cambiar comportamientos si no cambiamos los valores. Por lo tanto, el cuestionamiento de la masculinidad, sus paradigmas, es evidente que están en la razón misma del cambio cultural que hemos de producir, que hemos de motivar e impulsar para militar realmente en el proyecto para la igualdad de mujeres y de hombres, que es con toda seguridad el más bonito, ambicioso y democrático que tenemos para impul-

sar en el siglo XXI, en Euskadi y en el mundo”.

Ibarretxe reconoció que son las mujeres las que han abierto los ojos a la sociedad en esta materia y que “si hemos llegado hasta donde estamos es gracias a vuestra labor”. Se congratuló de que “cada vez somos más hombres los que nos damos cuenta de que no tenemos que temer en avanzar y profundizar en el principio para la igualdad de mujeres y hombres. Si yo hablaba en 2001 como una especie de explorador, hoy no me siento un explorador en estas materias. Por lo tanto, tengo que trasladarles que, como lehendakari, estoy orgulloso de que sean muchos hombres en este país, muchos vascos, los que quieren acompañaros a las mujeres en el desarrollo del principio de igualdad con fuerza, con energía y con ilusión. Necesitamos un ejército pacífico de voluntarios para acompañar a las mujeres y construir un proyecto juntos en este país, hombres y mujeres y me gustaría liderar a ese conjunto de hombres”.

Aprovechó la ocasión para avanzar la presentación del proyecto “Gizonduz”, una iniciativa para promover la concienciación e implicación de los hombres a favor de la igualdad de sexos en la Comunidad Autónoma de Euskadi que se detalla en otra sección de esta misma revista. Sobre este programa, el lehendakari adelantó que “se van a tomar una serie de medidas para que sepamos construir la vida diaria cada vez más entre los hombres y las mujeres”.

Con respecto al congreso, Ibarretxe expresó su deseo de “aprender de las ideas, las experiencias, los debates y las aportaciones que se planteen en estas jornadas, que sirvan para seguir aprendiendo en un camino en el que siempre queda una pincelada más, como el cuadro de Gabriel Ramos Uranga. Una obra nunca se acaba, siempre queda una pincelada más. Igual ocurre en materia de políticas de igualdad: abrimos una puerta, entramos en otra sala y tenemos siete puertas y tenemos que abrir otra y otra más... esa es la grandeza de la vida: seguir avanzando”.

Izaskun Moyua

Emakundeko Zuzendaria



“Hartzen dugun erabaki bakoitzak eragin zuzena dauka berdintasunaren alde edo kontra”

La directora de Emakunde, Izaskun Moyua, presentó la quinta edición del congreso Sare, que nació -según explicó- como un foro de reflexión, innovación e intercambio sobre temas novedosos relacionados con la igualdad de género.

El objetivo de esta edición titulada “Masculinidad y vida cotidiana” ha sido, en palabras de Izaskun Moyua, analizar el funcionamiento de los patrones tradicionales que influyen en las relaciones cotidianas de mujeres y hombres.

La directora de Emakunde avanzó que el congreso iba a profundizar en la relación existente entre la masculinidad hegemónica con las prácticas de riesgo; qué relación tienen los hombres con el cuidado, con la violencia y las diferencias entre los dos sexos en relación a la gestión del dinero.

Emakundeko zuzendari Izaskun Moyuak Sare kongresuaren bosgarren edizioa aurkeztu zuen. Kongresua genero berdintasunarekin lotutako gai berritzaileen inguruan hausnartzeko, berrikuntzak sustatzeko eta trukeak egiteko foro gisa sortu zen, Moyuaren esanetan. «Izugarri pozgarria da SAREren edizio honek, maskulinitasunaren gaiaren bitartez, zenbateko interesa piztu duen ikustea. Eskerrak eman nahi dizkizuet etorri zareten guztioi.» Hitz horiekin eman zion Emakundeko zuzendariak hasiera kongresuari. Aurten «Maskulinitasuna eta eguneroko bizitza» du lelo, eta bere helburua gizonezkoen eta emakumezkoen ohiko harremanetan eragiten duten patroizkoen tradizioak nola funtzionatzen duten aztertzea da. Hala, testuinguru horre-

tan, maskulinitasun hegemonikoaren eta arrisku praktiken artean dagoen harremana aztertzeke asmoa dago; hots, gizonezkoek zer harreman duten zaintzarekin eta indarkeriarekin, eta bi sexuen artean zer harreman dagoen diru kudeatzeari dagokionez.

«Duela bost urte bururatu zitzaigun urtean behin nazioarteko kongresua antolatzeke ideia —esan zuen Izaskun Moyuak— hegazkin batean hain zuzen ere, askotan altueran pentsatzen baita ondoen. Kongresu horretan, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna osatzen duten *patcka-workak* edo zatiak konpontzeke gai berritzaileak jo-rratuko liriteke. Momentu horretan, foro horrek Historian gure aurretik izan diren emakume guztiak omentzeke balioko zigu-

"Hemos comprobado que por cada mujer que da un paso para avanzar en su propia liberación, hay un hombre consciente de que a él también se le ha allanado el camino para ser libre".

la pentsatu genuen Emakunden; bizi dugun gizartea eratzeko beharrezko materiala eman diguten emakumeak omentzeko, alegia. Kongresu horri Sare izena jarri genion, haien eta gure arteko haria lotuz, emakume guztientzako sarea josteko: hasi gure arbasoetatik eta bi- zitzeko borroka egiten duten emakumeetara heldu arte; egunero gizateriari justiziaren eta askatasunaren ametsa xuxurlatzen dioten emakumeetara heldu arte, hain justu.»

Bosgarren edizioaren gai nagusiari dagokionez («Maskulinitasuna eta eguneroko bizitza»), Izaskun Moyuak adierazi zuen entzutearen termometroa abian ipintzeko asmoz aukeratu zutela. «Guztiak inporta du, eta guztiak irakasten du zerbait. Orain arte ikasi dugunak ez gaitu berritzailea dena ez ikustera arte itsutzen. Eta, alde-rantziz, orain artean ikasitakoak oraindik ere deskubritzeko ugari dugula ikusarazten digu; oraindik ere alde ilun ugari ditugula argitzeko.»

Horren ostean, generoaren inguruko ikerketen historiari erreposoa egin zion, gizarte zientzietako alor espezializatu bezala. Moyuak adierazi zuen 80ko hamarkadan heldu ziotela gizarte zientziek maskulinitasunaren inguruko auziari, batez ere herrialde anglosaxoietan. «Hortik aurrera hasi ginen gizonezkoak beste ezezagun gisa kontuan hartzen, ordura arte emakumezkoak gizateriako ezezagun gisa hartzen zituzten bezalaxe. Orduan hasi ginen gizonezkoaren eredu bakarraren aurrean, gizonezko patriarkalaren aurrean, maskulinitasun ereduak aztertzen, ordura arte eredu hori bakarrik errekonozitu baitzen. Orduan hasi ginen ikusten maskulinitasunaren ereduak aldatu egiten direla denboren eta lekuen arabera, ez dagoela baliozko maskulinitasun bakar bat. Orduan hasi ginen maskulinitasunaren eredu unibertsala eta iraunkorra zalantzan jartzen.» Inaugurazio hitzaldian, Moyuak baieztatu zuen Emakundek denbora luzea daramala maskulinitasunaren inguruko hausnarketa sustatzen. «Herritar guztien eskubideak errespetatuko dituen gizartea eraiki nahi baldin badugu, ezinbestekoa da gizonezkoek ere lan horretan parte hartzea. Hori garbi daukagu. Hala, Emakundek beti izan ditu kontuan bere lanen ildo estrategikoetan eta egin dituen berdintasun planetan.» Izaskun Moyuaren arabera, kezka horren emaitza izan zen 2001ean Donos-

tiako Kursaal jauregian egindako kongresua, «Gizonezkoak ordena sozial berriaren aurrean» lelopean. «Aldi hartan, berrikuntza zen horrelako gai bat mahai gainean ipintzea. Eta, alde horretatik, Sare oso emankorra izan zen, oso ekarpen interesgarriak egin zituelako. Aurtengo edizioak ere berdintasunerako bidean mugarri lanak egingo dituela espero dut», adierazi zuen Emakundeko zuzendariak. Orain sei urteko eta aurtengo egoeraren artean desberdintasunik baldin bada, Moyuaren esanetan, hauxe da: «Bere burua askatzeko urrats bat ematen duen emakume bakoitzeko, gizonezko bat dago, aske izateko bidea samurtu zaiola badakiena. Emakundek orain hamar urte egin zuen kanpaina batean erabilitako esaldia da eta, harrezkero, begien bistakoa da gero eta emakume gehiago ari direla askatasunerako bidean aurrera egiten, eta gero eta gizon gehiagok aurkitzen dituela bide berriak». Berdintasunaren eremuan hartutako erabaki politikoei dagokienez, paralelismoa egin zuen gai honen inguruan egiten diren aurrerapenen eta aurrera egitea ahalbidetzen duten urrats txiki baina eraginkorren artean: «Askotan esan dugu politika ez dela neutroa; ez direla neutroak ez aurrekontuak, ezta erakundeek, antolakunde sozialek zein kulturek egunero markatzen dituzten estrategiak ere. Ideia hori errotzen joan da zeregin politikoan eta kontzientzia sozialean. Ematen dugun urrats bakoitzak, hartzen dugun erabaki bakoitzak, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren, haize-orratza alde batera edo bestera mugitzen du. Iparraldera edo hegoaldera, ekialdera edo mendebaldera. Berdintasunaren bidean ez dago haizerik gabeko egunik. Mugimendu bakoitzak, erabaki bakoitzak, eragin zuzena dauka berdintasunaren alde edo kontra. Emakume guztiak daude inplikaturata, baita gizonezko guztiak ere. Inork ez dezala pentsa honekin zerikusirik ez daukanik. Gizon bat ere ezin daiteke neutro izan».

«Horren jakitun izanik, bidea egiten jarraitzen dugu, ondoren etorriko diren pertsonen bidea ziurtatzeko oinarriak finkatzen. Bidea lehen aldiz egiten duen pertsona bezalaxe, bidea zabaltzen duena bezalaxe, ondoren datozenek horri jarrai diezaioten.» Irakaskuntzaren alorrean Emakundek sustatzen duen Nahiko programari buruz, Moyuak gogoratu zuen, neska-mutilei proposatzen zaien ariketa batean erakusten zaiela beren jarrerak *berdintasunaren termometro* gisa jokatzeko duela; hots, tenperatura berotu edo hoztu egiten dela, eguneroko jarrerak dituzten eraginen arabera. «Guk geuk ere, neska-mutil horiek bezalaxe, oso kontuan izan behar dugu termometro hori. Izan ere, eguneroko bizimoduan egiten dugun guztiak eragina du berdintasunaren eremuan. Ez dago jarrera edo portaera neutralik», amaitu zuen Moyuak.

Azkenik, Emakunderen nahia azaldu zuen; hots, kongresu hau ate berriak irekitzeko giltza garrantzitsua izatea, eta kontzientzia indibidualak zein kolektiboak pizteko balio izatea.

MARÍA JESÚS IZQUIERDO

Geure nortasunaren barnean dagoen sexismoa bilatu behar dugu

Texto: Lupe Calvo
Foto: Karlos Corbella



Doctora en Economía, profesora titular de Sociología y directora del Observatorio para la Igualdad de la Universidad Autónoma de Barcelona, María Jesús Izquierdo considera que hombres y mujeres tenemos que buscar un camino común para que todos nosotros, que somos efectos del sexismo, lleguemos a ser sujetos y no objetos del poder. Izquierdo -autora de libros como "Los costos ocultos de la masculinidad" o "El malestar en la desigualdad"- abordó su conferencia bajo el título "Lo que cuesta ser hombre: costes y beneficios de la masculinidad" recordando sus palabras pronunciadas en su intervención en el congreso Sare 2001. "Quiero retomar las palabras que pronuncié aquí referentes a abrazar al violador y llorar con él. Con esto quiero decir que lamento que el sexismo haga que un hombre que experimenta una pérdida de control exprese su poder a través del acto de la violación".

Ekonomian doktorea, Soziologiako irakasle titularra eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Berdintasunerako Behatokiko Zuzendaria den María Jesús Izquierdok Sare kongresuan bigarren aldiz hartu du parte. Oraingo hone-tan, "Gizon izateak duen kostuak: maskulinitasunaren arriskuak" hitzaldia emanez. Orain sei urte, 2001eko eki-taldian, hizlari moduan parte hartu zuenean bortxatzailea besarkatu eta berarekin batera negar egiteko prest zegoela esanez egin zituen hitzak zehaztu nahi izan zituen maskulinitasunari buruzko hitzaldiari hasera ematerakoan. "Jakin badakit aurreko hartan esandakoak hautsa dezente harrotu zuela eta hura argitzen saiatuko naiz".

"Bortxatzailea besarkatzeko prest naiz eta egindakoagatik berarekin batera negar egiteko prest. Hitz horiek esan nituen orduan, eta berriro berretsi egiten ditut. Kontuak kontu, gizonak zein emakumeak botereak eragindakoak gara, beraz, sexismoak eragindakoak. Gizonen jarrerak kontutan hartzen ditugunean, gizonak erabat autonomoak direla pentsatuz, beraian egitura ekonomikoak eta egitura sozialak duen eragina ukatzen dugu, eta horrela jokatzuz lortu nahi dugun berdintasuneko gizarteari ez diogu batera mesederik egiten. 'Bortxatzailea besarkatu eta berarekin batera negar egin' esaten dudanean, esan nahi dut sexismoa deitoratu egin behar dugula. Horrela, sexismoa deitoratzea proposatzen dut, eta sexismoaren eragina garen gizonak eta emakumeak bide bakarra bilatzea boterearen objektuak izan beharrean boterearen subjektuak izan gaitezten. Nire helburua hortaz, emakumea objektu izan beharrean subjektu izatea da. Genero ezberdintasunaren kontakizunean, gizona beti da subjektua eta emakumea, aldiz, beti da objektua. Bortxatzailea besarkatu egin behar dudala esanez, bortxatzailea boterearen objektu bezala ikusten dudala adierazten dut eta baita ere benetan deitoratzen dudala sexismoak gizonen artean horrelakorik egitea: kontrola galdu eta bere boterea bortxakeriaren bidez adieraztea. Beraz, gizonak zein emakumeak egunero-egunero errepikatzen dugun harreman sistema baten biktimak gara" María Jesús Izquierdok esan zuenez.

Sexismoari egindako kritiken diskurtsoan, emakumeak zapalkuntzaren objektu izan dira gizonari subjektu zapaltzaileen rola emanez. Emakumeen eta gizonen arteko harremanak zapalkuntzazkoak direla baieztatzea, eta gizonetzkoaren posizioa subjektuarena eta emakumezkoaren posizioa objektuarena edo subjektu pasiboarena baino ez dela ondorioztatzea oso gauza desberdinak dira. Hau guztia esanda, aldaketa etiko zein politikoa proposatu zuen Izquierdok, besteak beste "Los costos ocultos de la masculinidad" edota "¿En qué consiste la masculinidad? De lo privado a lo público, de lo personal a lo relacional" liburuen egileak. "Aldaketa etikoaren harira, proposatzen dut gizonen ardura salatzen duten diskurtsoak egin beharrean emakumeok ardura hartzea. Guk izan behar dugu, emakumeok, gauzen ardura. Aldaketa poli-

"Nosotras las mujeres, en lugar de construir discursos en que se señala la responsabilidad de los hombres, tenemos que hacernos responsables del mundo en el que vivimos".

tikoak berriz, emakumea izaera unibertsaleko helburuak dituen talde sozial bezala definitzea ekarriko du. Hortaz, munduaren ikuspegiak emakumeen sufrimendua, egonezina eta degradazioa jasotzeaz gain, gizonarena ere jaso beharko luke".

Sexismoaren kontra egiteak gure barnean dagoen sexismoaren kontra egitea da María Jesús Izquierdoren esanetan, eta ez ordea gizonetaz dugun irudiaren kontra egitea. "Askotan esan ohi dugu, esate baterako, 'gizonak zakarrak edo bortitzak dira, eta emakumeak aldiz xamurrak eta gozoak'. Baina hau ez da horrela, egunero ikusten baitugu emakume bortitzak edo zakarrak izan badaudela, eta gizon gozoak izan badaudela. Egunero pertsona zakarrak zein gozoak topatzen ditugu. Hobeto esanda, batzutan portaera zakarrak eta bestetan portaera gozoak dituzten pertsonak. Edo pixka bat gehiago nahaste arren, biak batera, portaera zakarrak eta gozoak batera dituzten pertsonak. Sexismoa gure barnean errotuta baldin badago, baita emakumeon barnean ere, guk geuk emakumeok aztertu beharko dugu zein neurritan posible egiten dugun sexismoa egotea eta zein neurritan posible egiten dugun gizonengan egotea".

Horren aurrean bi lan egin behar direla dio aditu honek: gizon eta emakumeen jarreretan baldintza estrukturalak duten eragina aztertzea, batetik. Gure nahiak zein neurritan sexismoaren adierazpenak diren aztertzea, bestetik. "Emakumeok, nahiz eta liberalak eta progresistak izan, zergatik ematen dizkiogu gizonari automobileko giltzak berak gidatu dezan? Zergatik etxeko posta-ontzian emakumearen izenaren aurretik gizonarena jartzen dugu? Zergatik emakumeok eskatzen diogu gizonari detaile zalea izatea eta bere opariaren zain gaude eta gu geu, ordea, ez gara detaile zaleak beraiekin? Hauxe da norberaren nortasunaren barnean sexismoa bilatzea".

Beste hau ere azaldu zuen María Jesús Izquierdok maskulinitasunari buruzko kongresuan, emakumeak berak zerikusia baduela berari gertatzen zaion horrekin eta baita feminismoak beste aro batera pasatzea komeniko litzatekeela esan ere. "Neskak gona motxa zeramalako bortxatu zutela zioen sententzia hura denok izango duzue gogoan. Sententzia hark zer esaten dit niri? Geure eskutan dagoela gertatzen zaiguna. 'Aizu neska: zure eskutan dago bortxatua izan ala ez'. Ez naiz sartuko epaileak ematen duen jus-

“Puede ser por un reconocimiento al empobrecimiento estructural que sufren las mujeres, pero las sentencias de divorcio tienden a ser favorables a las mujeres y los hombres pierden el patrimonio”.

tifikazioarekin, hori beste gauza bat da. Baina emakumea subjektu bezala begira araztera eramaten nau sententzia hark. Gertatzen zaionaren jabe, nolabait esan, emakumea egiten du. Beste esaera hau ere gogoan izango duzue: ‘Emakumearen etsairik handiena emakumea da’. Sexismoa posible egiten duen hori emakumeengan errotuta dagoela esan nahi du honek, beraz gu geu munstroaren barnean sortutako fruitua garelara eta ez ordea munstroaren menpe gauden gizakia”.

